

ERRENTERIAKO UDALERRIA BIZITEGI-MERKATUKO TENTSIO EREMU IZENDATZEKO HASIERAKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

0.- ERREFERENTZIAZKO ESPARRU JURIDIKOA

Memoria honen esparru juridikoa honako hauek osatzen dute:

- 12/2023 Legea, maiatzaren 24koa, Etxebizitza Eskubidearena;
- Ekainaren 18ko 3/2015 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzarena;
- Euskadin etxebizitzaren arloan indarrean dauden erregelamendu-mailako arau eta xedapenen multzoa;
- Eusko Jaurlearitzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ezarritako prozedura, Errenteriako Udalarari bidalia eta Etxebizitzaren Euskal Behatokia argitaratua, eta "EAEn etxebizitzari buruzko estatuko legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea arautzen duena" dokumentuan definitua

Eskumen-esparruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela etxebizitzaren, lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduaren eta hirigintzaren arloan.

Udalerriek etxebizitzaren arloan duten eskumenari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 a) artikulua ezartzen du udalerriek eskumen propio gisa baliatuko dituztela, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako hauek:

- Hirigintza-plangintza, -kudeaketa, -gauzatzea eta -diziplina.
- Ondare historikoa babestea eta kudeatzea.
- Babes publikoko etxebizitza sustatzea eta kudeatzea, finantza-iraunkortasunaren irizpideei jarraiki.
- Eraikuntzaren kontserbazioa eta birgaitzea.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17. artikuluan, udalerrien eskumen propio gisa ezartzen ditu

- 7) Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa.
- 9) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.

1.- SARRERA

Justifikazio-memoria honen xedea da diagnostikoan aztertutako elementu eta adierazle guztiak modu ordenatuan azaltzea (Errenteriako diagnostikoa, tentsio eremu izendatzeko), bai eta horiek 12/2023 Legearen 18.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarren batekin edo batzuekin duten lotura ere; izan ere, azken horiek aukera ematen dute eremu bat bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko.

Inguruabar horietakoren baten presentzia aurretiaz egiaztatu da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren txostenean, 2. irizpidea izenekoari dagokionez, eta hori bat dator Etxebizitzaren Legearen 18.3 artikuluan definitutako honako inguruabar honekin

- a) Alokairuaren kostuak aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzaren unitatearen aurrekontuan duen batez besteko kargak, gehi oinarritzko gastu eta hornigaiak, etxekoen unitateen batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar gaitzea.

Errenteriako udalerrriaren kasuan, 2021ean alokairu-kostuaren batez besteko karga udalerrrian dagoen familia-errentaren % 33.03 da; beraz, izendapena eskatzeko eskatzen den baldintza (% 30) 3 puntutan gaitzen du. Aurrerago adierazten den bezala, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak berak berretsi du zenbatespen hori "Euskadiko tentsio eremuei buruzko txostenean". Bertan, Errenteria da tentsio eremu izendatzeko eska dezakeen udalerrietako bat, udalerriko etxekoen unitateek batez beste alokairu ordaintzeko ahalegin ekonomikoaren % 30eko kota gaitzen baitute.

Hala ere, diagnostikoan bildutako datuak ez dira irizpide hori betetzen dela egiaztatzea mugatzen; aitzitik, aukera ematen dute Errenteriako dinamika demografikoak eta mugakide diren udalerrien arteko mugikortasun-dinamikak aztertzeko, bai eta etxebizitzaren prezioek (erostea eta alokatzea) azken urteetan izan duten bilakaera, familien egoera sozioekonomikoa eta etxebizitza eskuragarriaren beharra duten kolektiboen konfigurazioa eta dimentsionamendua aztertzeko ere.

Era berean, herri-administrazioek udalerrian etxebizitza arloan garatu dituzten neurri eta programa nagusiak jasotzen dira, arreta berezia eskainiz etxebizitza eskuragarrien eskaintza handitzeko eta etxebizitza-premia berezia duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateko udal-ekimenei.

Hori guztia oinarri hartuta, eta sistematizatutako datu-sorta zabalarekin agerian geratu den bezala, egiaztatu da Errenteriako udalerrri osoan etxebizitza gutxiegi eskaintzeko arrisku berezia dagoela biztanle egoiliarrentzat, etxekoen unitate berriak eratzea barne, eskuragarritasun-baldintza egokietan.

Horrela, eta etxebizitza eskuragarriaren eskaintza nahikoa ez izatearen egoera hori, modalitate guztietan, zuzentze aldera, memoria honek 12/2023 Legean bizitegi-merkatuko tentsio eremuetarako aurreikusitako ondorioak aplikatzeko eskatuko du azken zatian, ikuspegi bikoitz batetik:

- 12/2023 Legeak Hiri Errentamenduen Legean (HEL) egindako aldaketak aplikatzea, etxebizitza librean parkeko alokairu-prezioen hazkundea motelitzeko eta, horrela, etxekoen unitate kalteberenen edukitzan segurtasun juridikoa eta egonkortasuna hobetzen laguntzeko.
- 3 urteko epean garatu beharreko neurri espezifikoaren plana eta kronograma onartzea, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan estuan eta eskumenak koordinatuta, Errenteriako etxebizitza eskuragarriaren eskaintza modu irmoan handitzeko.

2.- DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

Prestaketa-fasean bildutako adierazleen, informazioen eta gainerako elementuen zerrenda zehatza modu sistematizatuan aurkezten da diagnostikoan bertan; horrez gain, dokumentu horrek, ondorioen azken atal espezifiko bat ere jasotzen du.

Horrenbestez, memoria honetan, Etxebizitzari buruzko 12/2023 Legeak 18.2.a) artikuluan berariaz aurkezteko eskatzen dituen adierazleak nabarmentzen dira, bereziki:

- etxebizitza mota desberdinen alokairuko eta salmentako prezioen adierazleak, eta denboran izan duten bilakaera;
- etxekoen unitate egoiliarrek duten errenta-mailaren adierazleak eta denboran izan duten bilakaera, etxebizitza-prezioekin batera, etxebizitza duin eta egokia izateko familiek egin behar duten ahalegin ekonomikoaren bilakaera neurtzeko aukera ematen dutenak.
- eremuko etxebizitza-merkatuak ohiko etxebizitzaren eskaerari behar bezala erantzuteko dituen hutsuneak edo eskasiak, edozein modalitatetan, eta, nolabehere ere, arrazoizko prezioan, biztanleria egoiliarren egoera sozioekonomikoaren eta dinamika demografikoen arabera, bai eta lurralde-eremu bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarriak ere

Nolanahi ere, zehaztasun-irizpide gisa, estatistika ofizialetatik datozen informazioa eta adierazleak erabili dira diagnostikoa egiteko, Errenteriako udalerriri buruzko datu zehatzak emateko adierazgarritasun-maila nahikoa dutenak.

Dinamika demografikoak

Errenteriako biztanleriak 1.519 pertsonatan egin du gora XXI. mende honen hasieratik, 2020an errolatutako pertsonak 40.000 (39.520 pertsona) izatera iritsi arte. Dinamika positibo horrek esan nahi du biztanleria % 5,2 hazi dela azken 21 urte hauetan, 1.519 pertsonako hazkunde garbiarekin, eta horrek zertxobait gainditzen du Donostialdean oro har ikusitako hazkundea (+% 4).

Nabarmentzekoa da adieraztea Errenteria dela biztanle gazteak jasotzen dituen udalerririk garrantzitsuenetako bat, etxebizitza eskatzen duen kolektibo gisa. Errenteriako 18 eta 35 urte bitarteko pertsonen migrazio-saldoa, ingurukoekin alderatuta, positiboa da

udalerrientzat 2012tik 2022ra. Azken urteetan Errenteriara bizitzera etorri diren gazteak gehiago dira udalerritik kanpora emigratu dutenak baino (diagnostikoko 5. grafikoa). 2022. urtea izan da beste udalerrri batzuetatik Errenteriara bizitzera 18 eta 35 urte bitarteko gazte gehien etorri diren urtea. 1.155 pertsona etorri ziren guztira. Aldiz, 18 eta 35 urteko 864 pertsonak migratu zuten beste udalerrri batzuetara. Hortaz, saldoa positiboa izan zen: 291 pertsona.

Joera hori berresten du, halaber, "Bizilekuari lotutako gazteen mugikortasuna Gipuzkoan: 2010-2020 aldia" azterlanak. Errenteria da Donostiatik etorritako gazte gehien jaso dituen herria (892), balio absolutuetan. Errenteria-Irun ardatzarekiko ere iritsiera-saldo positiboa izan du, Donostialdeako mugikortasunari dagokionez ardatz aktiboena.

Ondoren etxebizitzaren prezioen egoerari buruz ikusiko dugun bezala, esan daiteke gazte horien proportzio esanguratsu bat Errenteriara lekualdatzen dela inguruko udalerrietan, batez ere Donostian, etxebizitzak kostu handia duelako. Horrek presio gehigarria eragiten dio etxebizitzaren merkatuari, eta merkatua tentsionatzen du.

Tokiko etxebizitzaren merkatua ingurunean dagoena baino merkeagoa izateak ere eragina du beste nazionalitate batzuk dituzten pertsonen etorreran. Atzerritar jatorriko biztanleriari dagokionez, 2001 eta 2022 artean Errenterian erroldatutako 735 pertsonatatik 4.384ra igaro da, ia % 500eko hazkundera; Donostialdean, berriz, batez besteko hazkundera txikiagoa izan da, % 360koa. (Diagnostikoko 2. taula)

Beste adin-tarte batzuei dagokienez, Errenteriako biztanleriaren zahartze-prozesua nabarmena dela egiaztatu da. 2022an 65 urtetik gorako 9.525 pertsona bizi ziren Errenterian, 2001ean baino 3.188 gehiago. Hortaz, bi hamarkada hauetan % 50 egin du gora talde horrek. 20 urtetik beherako biztanleriaren hazkundera hiru aldiz txikiagoa izan da, % 18 baino ez baitu gora egin aldi berean.

Zahartze progresibo horrek eragina du etxeko unitateen eraketan, Euskadiko gainerako lurraldeetan bezala, eta etxebizitza bakoitzeko pertsona-kopuruak (etxeko unitatearen tamaina) beheranzko joera argia erakusten du. Batez beste, Errenterian, etxeko unitate bakoitzeko batez besteko pertsona kopurua 2010ean 2,5 egoiliar izatetik 2022an 2,3 izatera igaro da, eta alde txikiak daude auzoen arabera.

2010-2022 aldian, etxeko unitateen kopuruak % 5,9 egin du gora, eta nabarmentzekoa da pertsona bakarrek etxeko unitateen osaera, % 34 handitu baita. Errenteriako 10 etxebizitzetatik 3tan pertsona bakarra dago erroldatuta; hortaz, 2022an 5.056 pertsona bizi dira bakarrik udalerrian, eta 2010ean, berriz, 3.761. 2 pertsona bizi diren etxebizitzak % 3 baino ez dira gehitu, eta 3 eta 5 egoiliar artean bizi direnak dira etxeko unitate gehienak. Horien kopurua % 8 jaitsi da (538 etxeko unitate gutxiago). (Diagnostikoko 13. taula)

Beraz, etxebizitza-parkearen erabilera gero eta txikiagoa da, nahiz eta etxebizitza ez-nagusien kopuruak behera egin. 12 urtean, pertsona 1 edo 2 bizi diren etxeko unitateak etxebizitza nagusi guztien % 56,5 izatetik % 62,1 izatera igaro dira.

Testuinguru horretan, etxebizitza-eskaintza handiagoa behar da, egoiliarren beharrei erantzuteko eta etxekoen unitate berriak eratzeko.

Etxebizitza-parkea eta etxebizitza-merkatuko dinamikak

2010etik 2022ra bitartean, Errenteriako etxebizitza-parkea % 3,7 handitu da, 17.440 etxebizitzatik 18.079 etxebizitzara. Aldi horretan udalerriko biztanleriak izan duen hazkundearen antzekoa da hori. Udalerriko etxebizitza-parkearen hazkunde-erritmoa baxuagoa izan da Donostialdeakoa (+% 8,3) eta Gipuzkoako batezbestekoa (+% 6,8) baino.

Lehen aipatu bezala, etxebizitza nagusien kopuruak % 5,9 egin du gora Errenterian, etxebizitza-parke osoaren hazkundearen gainetik. 2022an, udalerriko 18.079 etxebizitzetatik 16.673 ziren etxebizitza nagusiak. Horrela, etxebizitza ez-nagusien intzidentzia jaitsi egin da 2010etik, eta gaur egun Errenteriako etxebizitza-parkearen % 7,7 da, 2010ean % 6,9 zen bitartean. Beraz, etxebizitza nagusiaren erabilerak gora egin du. (Diagnostikoko 14. taula)

Erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzen kopurua eta ehunekoa eskuratzea ahalbidetu du erroldaren analisiak. Guztira, 972 etxebizitza dira: Errenteriako etxebizitza-parkearen % 5,5.

Etxebizitza-premia handia eta egiaztatua dagoen udalerrri guztietan bezala, etxebizitza ez-nagusien kopuruak behera egiten du, eskatzaileek prezioen igoera progresiboak onartu ahala, eskaintza nahikorik ez dagoelako.

Etxebizitza behar horrek eragindako erosketa-prezioen goranzko bilakaerari dagokionez, ikus daiteke Errenterian erregistratutako salerosketen etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioak goranzko joera izan duela azken urteetan. 2019tik aurrera, erregistratutako salerosketen batez besteko prezioa igo egin dela egiaztatu da, 200.000 euroko muga gaindituta, eta 2023ko lehen hiruhilekoan 228.000 euroko batez besteko preziora iritsi da, serie historikoko erregistrorik handiena. (Diagnostikoko 27. grafikoa) Prezio horiek gorantz jarraitzen dute, nahiz eta urtero egindako eragiketak gero eta gehiago izan (2014an 173 eta 2022an 364). (Diagnostikoko 17. taula)

Errenteriako salerosketen metro karratu bakoitzeko batez besteko prezioaren bilakaerak ere islatzen du etxebizitza-merkatuak azken urteetan izandako tentsionamendua. 2022an eta 2023ko lehen hiruhilekoan, metro karratu bakoitzeko 3.000 euroko muga gainditu zen hainbat hiruhilekotan.

Horrela, egiaztatu da Errenteriako etxebizitza-merkatuaren bilakaera ez duela udalerrian bertan erroldatutako pertsonen eskari endogenoak bakarrik baldintzatzen; izan ere, Donostiako metropoli eremuko presioak eta udalerrri honen aparteko egoerak ere badute eragina. Metro karratuaren batez besteko prezioa are altuagoa da Donostialdeako eremu funtzionalean. 2022an eta 2023an, metro karratuko 4.000 eurora iritsi zen. (Diagnostikoko 29. eta 30. grafikoak)

Alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren konfigurazioari dagokionez, 2011 (Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua) eta 2022 (Etxebizitzaren Udal Estatistika) arteko datuen arabera, alokairuko etxebizitzaren kopuruak % 73 egin du gora, 2011n 1.321 etxebizitza izatetik 2022an 2.293 etxebizitza izatera igaro baita, etxebizitza nagusi guztien % 13,8. Zifra horiek alokairuko etxebizitzaren pisu erlatiboaren azpitik daude Euskadin (% 14), Gipuzkoan (% 15,6) eta Donostialdean (% 17,3). (Diagnostikoko 20. taula)

Alokairuko prezioen bilakaerari dagokionez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistikako Organoak egiten duen Alokairu Merkatuaren Inkestaren (ALMI) arabera, 2017tik 2022ra, Erretereriako alokairu libreko etxebizitzetan urtero sinatutako kontratuen batez besteko errenta hazi egin da, batez beste, hilean 608 eurotik 713 eurora, hau da, % 17,2ko hazkunde-tasa. Hazkunde hori Donostian erregistratutako hazkundearen maila berekoa da, eta inguruko udalerrietakoa baino handiagoa. (Diagnostikoko 22. taula)

Era berean, adierazgarria da Donostiako alokairuaren prezio altua. Hala, metro karratuaren alokairu-prezio altuenak dituzten Estatuko hiriburuen artean dago. Donostiako alokairua garestia izateak eta hiriko eskaria ase ezinaren presioak eragina dute metropoli eremu osoan eta, ondorioz, alokairuaren prezioa oso altua da eremu horretan.

Adierazle sozioekonomikoak

Etxekoen unitateen batez besteko errentari dagokionez, Erretereriaren kasuan, ingurunearekin alderatuta, egoera kaskarra da etxebizitza eskuragarritasun-irizpideekin eskuratzeko orduan. Erretereriako etxekoen unitateek 33.741 euroko batez besteko errenta erabilgarria dute, argi eta garbi Donostialdeako batez besteko errentaren eta Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik, biak 40.000 eurotik gorakoak. (Diagnostikoko 16. grafikoa).

Arestian azaldutako dinamika demografikoak kontuan hartuta, Donostialdean errenta erabilgarri handiagoa izateak ondorio kaltegarria dakar Erretererian bizi diren biztanleentzat, errenta erabilgarri handiena duten eta hurbileko beste udalerririk batzuetatik datozen eskatzaileek alokairuko eta salmentako etxebizitzaren prezioetan egiten duten presioa dela-eta.

Horrez gain, batez besteko errenta pertsonalari buruzko datuak aztertuta, argi ikusten da emakumeen egoerak okerragoa izaten jarraitzen duela (2001az geroztik hobera egin duen arren), eta horrek baldintzatu egiten du etxebizitza eskuratu ahal izatea eta hura ordaintzen jarraitu ahal izatea.

Bilakaerari dagokionez, Erretereriako etxekoen unitateen batez besteko errenta erabilgarria % 58 hazi da 2001etik 2021era, inguruko erritmoaren oso antzera, nahiz eta hazkunde hori, termino errealean, % 4koa baino ez den. Gainera, Erretereriaren eta Donostialdearen arteko batez besteko errenta erabilgarriaren aldea, 2001-2021 aldian, 4.660 eurotik 7.319 eurora igaro da.

Etxebizitza-premiak eta -eskaria

Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen etxebizitza-eskaerari dagokionez, gazteen kasuan, 18 eta 34 urte bitarteko 2.454 gazte emantzipatuta eta Erreterian errolatuta daude. Udalerrian errolatutako gazteen % 37,3koa da emantzipazio-tasa.

Euskadiko emantzipazio-tasa baino altuagoa da. Izan ere, Euskadiko emantzipazio-tasa % 32,9koa zen 2021ean, Gazteriaren Euskal Behatokiaren arabera¹. Beraz, Erreteriarako 3 gaztetik 2 inguruk etxebizitza bat behar du edo beharko luke datozen urteetan.

Emantzipazio maila nabarmen aldatzen da adin tartearen arabera, Euskadi osoan gertatzen den bezala. 18 eta 23 urte arteko gazteen artean, emantzipazio-tasa % 13,7koa da; 24 eta 28 urtekoen artean handiagoa da, % 37,2koa; eta 29 eta 34 urte arteko pertsonen artean are handiagoa, % 66,8koa.

Etxebizitza babestuaren eskaerari dagokionez, 2023ko uztailean 2.594 bizikidetz-unitate zeuden Etxebiden izena emanda, Erreterian.

Bizikidetz-unitate horien artetik, 1.838 Erreterian errolatutako pertsonak eta familiak dira. Aldiz, gainerako 756 bizikidetz-unitateak beste udalerrri batzuetako pertsonak eta familiak dira, Erreterian etxebizitza babestua eskatu dutenak.

Eskari maila hori altua da, Euskadiko batez bestekoarekin alderatuta. Hala, Euskadi osoan 74.078 eskari daude Etxebiden izena emanda: 3,4 eskari 100 biztanleko. Erreterian adierazle hori bikoiztu egin da, eta 100 biztanleko 6,4 eskaera erregistratu dira.

Erreterian errolatuta dauden eta etxebizitza babestua eskatzen duten 1.838 pertsona eta familiei erreparatuz gero, alokairu babestua eskatzen duten eskaeren garrantzia nabarmena da (guztizkoaren % 75,1). Alokairu babestua eskatzen dutenen batez besteko diru-sarrerak ez dira 14.000 eurora iristen. Eroste eskaria egiten dutenen batez besteko diru-sarrerak, berriz, 23.463 eurokoak dira. Horrek esan nahi du, batez beste, 16.250 euro bizikidetz-unitate bakoitzeko. (Diagnostikoko 9. taula)

Eskari gehienak pertsona bakarrek egindakoak dira, baina pisu erlatibo garrantzitsua dute 2 pertsonako (bikoteak edo guraso bakarrek) eta 3 pertsonatik gorako eskariak ere; horien artean, alokairu babestuko eskari guztien % 47 osatzen dute.

Nabarmendu behar da, halaber, Erreterian alokairu babestuko etxebizitzaren eskaria emakumeei lotuago dagoela gizona baino. Sexuaren arabera, emakumeak dira gehienak eskariaren bi erregimenetan. Hala, emakumeak eskariaren titular bakarrak dira erosketa-eskariaren % 43an eta alokairu-eskaeren % 39,8an. Ehuneko horiek askoz ere handiagoak dira eskariaren titular bakarra gizona den kasuetan baino. (Ikusi diagnostikoko 10. taula)

Azkenik, etxebizitza eskuragarriaren eskatzaileen problematika testuinguruan kokatzeko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak duela gutxi lurralde historikoei eta euskal hiriburuei buruz argitaratu dituen informazioak aipatu behar dira. Informazio horien arabera,

¹ https://www.gazteukera.euskadi.eus/estatistikak/PXWeb/pxweb/es/castellano/-/px2676_c.px

Gipuzkoan babestutako alokairuaren eskariaren kasuan, etxebizitza eskatzen duten bizikidetzak-unitateen % 75,6 alokairu libreko etxebizitza batean bizi dira dagoeneko (diagnostikoko 20. grafikoa).

Horrela, Erreterriko alokairu libreko parkean bizi diren pertsona eta familia asko alokairuko etxebizitza babestuak eskatzen dituzten pertsona eta familietakoak dira, bizi diren errenta librea ordaintzeko zailtasunak aurkitzen dituztelako eta horrek dakarren ahalegin ekonomiko murritzutik behar dutelako.

Alokairu libreko etxebizitza batean bizi eta alokairu babestuko etxebizitza eskatzen duten etxeen unitate emantzipatuen ehunekoari buruzko hipotesi hori aplikatuz gero, Erreterrian 1.000 etxe baino gehiago egongo lirakeke egoera horretan, hau da, Erreterriko alokairu libreko parkeko hamar etxebizitzatitik lau baino zertxobait gehiago.

Azkenik, eskura dauden datuen arabera, Erreterrian edukizaille handien jabetzako 140 etxebizitza daude, guztira 21 pertsona eta enpresa jaberena. Honek alokairu libreko etxebizitza-parkearen %6,5 inguru suposatzen du.

Etxebizitza-politikaren erantzuna

Hamarkadatan zehar etxebizitza babestuak sustatzeko egindako lanaren ondorioz, gaur egun 723 etxebizitza daude etxebizitza babestu gisa kalifikatuta. Gehienek, 623 etxebizitzek, 2003an Euskadin ezarritako kalifikazio iraunkorra dute.

Modu osagarrian, etxebizitza hutsak mobilizatzeko programek (adibidez, Bizigune eta ASAP) aukera ematen dute etxebizitza hutsak alokairuko etxebizitza eskuragarrien parkearen parte bihurtzeko, aldi batez. Gaur egun, Erreterriko 84 etxebizitza daude Bizigune programaren barruan, eta beste 3 etxebizitza ASAP programan.

Alokairurako prestazioen eta laguntzen Euskadiko sistemak estaldura handia ematen die etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta bizikidetzak-unitateen, eta hori Erreterrian ere egiaztatzen da. 800 bizikidetzak-unitate inguruk jasotzen dute prestazioen bat alokairu libreko etxebizitza ordaintzeko, besteak beste, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (384 bizikidetzak-unitate), etxebizitzarekin lotutako Larrialdietarako Laguntzak (237 pertsona), Gaztelagun (124 bizikidetzak-unitate) edo Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (40 bizikidetzak-unitate).

Gainera, Udalak 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako informazio-kanpaina aurkeztu du, Erreterrian emantzipazioa sustatzeko jaso ditzaketen etxebizitzarako dirulaguntzen berri izan dezaten.

3.- TENTSIO EREMU IZENDATZEA AHALBIDETZEN DUTEN INGURUABARRAK BETETZEREN JUSTIFIKAZIOA

Diagnostiko-agirian (8. atala: Tentsio eremu izendatzeko irizpideen zenbatespena), 12/23 legeak 18.3 artikuluan ezarritako inguruabarretako bat betetzen dela zenbatesteko metodologia bat jaso da, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "Euskadiko tentsio eremuei buruzko txostenean" kalkulaturako 1. irizpidearekin (azken 5 urteetan alokairuaren prezioa handitzea) eta 2. irizpidearekin (etxekoaren unitateen alokairua ordaintzeko ahalegina) bat datorrena.

Horrela, egiaztatu da Erreteriak bi irizpideetako bat beteko lukeela, 2. irizpidea, udalerriko osoa bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatu ahal izateko.

ERRETERIA- Tentsio eremu izendatzeko oinarritzko datuak	
Etxekoaren unitateen errenta erabilgarria 2021ean	33.714 €
2021eko alokairu-errenta + 2021eko etxekoaren unitatearen oinarritzko gastuak 670,1 (2021EKO ERRENTA) + 259 euro	929 €
Ahalegin ekonomikoa % 30 (2. irizpidea)	% 33

Ahalegin ekonomiko hori Gipuzkoako hirugarren handiena da, Pasaia eta Donostiaren (hainbat barruti) azpitik, eta Irungo maila berean.

Erreterian familiek duten errenta erabilgarriaren maila inguruko udalerriena baino txikiagoa bada ere, alokairu-prezioen bilakaerak, 2017-2022 aldirian % 16,71ko igoerarekin (1. irizpidea ere betetzeko hiru hamarren besterik ez), ageriko arriskuan jartzen du alokairuko etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea eta modu seguruan edukitzea.

Horrela, alokairu baten ordainketari lotutako kostuari aurre egiteko gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin beharrek, gehi oinarritzko gastu eta hornidurak, % 33tik gora, biztanleria egoiliar osoari eragiten dio. Gainera, diagnostikoan, Etxebiden inskribaturako babes publikoko etxebizitza eskatzen duten kolektiboen diru-sarrerara haztatuen mailei buruzko adierazleak aurkeztu dira; alokairuaren kasuan, udalerriko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoak dira.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak berak berretsi du gero zenbatespen hori "Euskadiko tentsio eremuei buruzko txostenean". Bertan, Erreteria da tentsio eremu izendatzeko eska dezakeen udalerrietako bat, udalerriko etxekoaren unitateek batez beste alokairua ordaintzeko ahalegin ekonomikoaren % 30eko kota gainditzen baitute.

Horregatik guztiatik, ondorioztatu behar da egiaztatutako inguruabar horrek arrisku berezia dakarkielako egoiliarrei behar beste etxebizitza ez izateko, etxekoaren unitate berriak eratzeko dinamika barne, eskuragarria egiten duten baldintzetan.

4.- PLAN ESPEZIFIKOAN PROPOSATUTAKO NEURRIAK ETA GARAPEN-EGUTEGIA.

12/23 Legeak 18. artikuluko 4. paragrafoan ezartzen duen bezala, lurralde eremu bat bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatuz gero, administrazio eskudunak berariazko plan bat idatzi behar du. Plan horretan, tentsio eremu izendatzean ikusitako desorekak zuzentzeko beharrezko neurriak proposatu behar ditu, baita neurri horiek garatzeko egutegia ere.

Eusko Jaurlaritzak tentsio eremu izendatzeko prestatu duen protokoloari jarraituz, eta 3 urterako neurri-plan espezifiko bat ezartzeak administrazioen arteko koordinazioa eskatzen duenez etxebizitzak planifikatu, programatu eta kudeatzeko, plan-proposamen bat erantsi zaio memoria honi.

Plan hori, Errenteriako udalerria bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzean onartu beharko litzatekeena, 4 ardatzen inguruan egituratzen da, eta batez ere Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plan Zuzentzailearen egiturari jarraitzen dio.

Plan honen helburu nagusia babes publikoko bizitegi-sistemaren eta bestelako etxebizitza eskuragarrien garapena areagotzea da, udalerriri dagozkion nahiz Eusko Jaurlaritzarekin itundutako programa eta baliabideen bidez.

Planak lau ardatz estrategiko ditu:

1. ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA

Planaren ardatz garrantzitsuena da; bertan, babes publikoko bizitegi-sistemaren eskaintza eta administrazio publikoek sustatutako bitartekaritza-programetako bati lagatako etxebizitzen eskaintza handitzea proposatzen da.

Hainbat ekintza espezifiko proposatzen dira, hala nola etxebizitza babestuak, zuzkidura-bizitokiak, etxebizitza eskuratzeko formula alternatiboak eta etxebizitza kolaboratiboak sustatzea.

Babes publikoko etxebizitzen sustapenari dagokionez, 533 etxebizitzako plana ezartzeko lehen hiru urtekoan eraikitzen hastea aurreikusten da Esnabide (54 etxebizitza), Altzate (39 etxebizitza) eta Gamongoa (440 etxebizitza) eremuetan.

Era berean, alokairu-merkatuko bitartekaritza-programak sustatu nahi dira (Bizigune eta ASAP), bai eta alokairu soziala sustatzeko neurri fiskalak eta dirulaguntzak garatu ere.

2. ETXEBIZITZEN ERAIKINEN PARKEAREN ETA HIRI BIRGAITZEAREN GAINEKO JARDUKETAK

Ardatz horren barruan, bizitegi-parkearen kalitatea eta bizigarritasuna hobetzera bideratutako hainbat estrategia eta jarduketa-ildo hedatzen dira, bereziki hiri-birgaitzearekin eta -berroneratzearekin lotutako politika publikoetan.

3. PRESTAZIO-SISTEMA, ALOKAIRURAKO LAGUNTZAK ETA KOLEKTIBO KALTEBERAK BABESTEIA

3. ardatzaren helburu nagusia alokairurako prestazioen eta laguntzen sistema indartzea da. Kolektibo kalteberak babesteari dagokionez, estrategia espezifikoa bat sartu da, Errenteria bizitegi-merkatuko tentsio-eremu izendatzeak dakartzan ahalmenak eta ondorioak txertatzeko.

Zehazki, hainbat estrategia eta jarduera-ildo hedatzen dira, honako hauek ezartzeari buruzko ekintzak barne:

- Gazteen emantzipaziorako laguntzak.
- Eusko Jaurlaritzak zailtasunak dituzten kolektiboentzako alokairua ordaintzeko sustatu dituen laguntzak.
- Egoera ekonomiko zaurgarrian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako alokairua ordaintzeko laguntzak eta bizitoki-aukerak.
- Tentsio eremu izendatzeak eratorritako estrategiak eta tresnak, prezioen kontrola eta kolektibo kalteberen babesak.

4. GOBERNANTZA SISTEMAK ETA ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA.

Ekintza horien helburua planaren koordinazio eta jarraipen eraginkorra bermatzea da, bai eta herritarrek etxebizitza-politiketan parte hartzea ere.

4. ardatzaren helburu nagusia gobernantza-sistemak ezartzea da, planeko neurriak eta baliabideak modu eraginkor eta koordinatuan kudeatu ahal izateko, administrazio eskudunen artean hitzartutako neurrien finantzaketan arreta berezia jarritz.

5.- ONDORIOAK

Maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak, etxebizitzarako eskubideari buruzkoak, etxebizitzaren arazoaren lurralde-aniztasuna aitortzen du, eta etxebizitza-arloko administrazio eskudunek bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko aukera aurreikusten du, biztanleentzako etxebizitza-eskaintza eskasa izateko arrisku berezia dagoen lurralde-eremuetan, eskuragarritasun-baldintza egokietan.

Memoria honek, "Errenteriako diagnostikoa, tentsio eremu izendatzeko" eta "Neurrien plan espezifikoa" dokumentuekin batera, behar bezala justifikatzen du Errenteriako udalerrri osoa bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko beharra, 2. irizpidea (ahalegin ekonomikoa) betetzen dela egiaztatzen baitu. Inguruabar horrek zailtasun larriak dakartza etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzeko eta edukitzeko, eta eragin negatiboa du bertan bizi diren biztanle guztiengan, eta, bereziki, etxeko unitate berriak osatzea aurreikusten duten pertsona eta bizikidetzaren unitateengan.

Horrela, eta herri-administrazioek etxebizitza eskuragarrien eskaintza handitzeko neurri espezifikoa modu planifikatuan hartzen dituzten bitartean, 3 urteko hasierako epean, ezinbestekoa da prezioen goranzko bilakaera geldiaraziko duten tresnak izatea, batez ere alokairu-merkatu librean.

Horregatik guztiagatik, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak prestatutako prozeduran oinarrituta, Errenteria udalerria bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko agindua emateko eskatzen dizuegu, gutxienez honako erabaki hauek barne hartuta:

1. Errenteriako udalerria, oro har, bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzea.
2. eremu horretarako esleitzea maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak, etxebizitza-eskubidearen aldekoak, bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatutako eremuetan aplikatzea aurreikusten dituen administrazio-neurri eta -ahalmen guztiak.
3. izendapenean eta hura garatzeko egutegian ageri diren desorekak zuzentzeko proposatutako "Neurrien plan espezifiko" onartzea, administrazio eskudunek 3 urteko hasierako epean behar bezala gauzatzeko hartutako konpromisoak zehaztuta.

MEMORIA JUSTIFICATIVA INICIAL PARA LA DECLARACIÓN DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE ERRETERIA COMO ZONA DE MERCADO RESIDENCIAL TENSIONADO

0.- MARCO JURÍDICO DE REFERENCIA

El marco jurídico de la presente memoria está constituido por:

- la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda;
- la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda del País Vasco;
- el conjunto de normas y disposiciones de carácter reglamentario vigentes en Euskadi en materia de vivienda;
- el procedimiento establecido por el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, remitido al Ayuntamiento de Erreterria y publicado en el Observatorio Vasco de la Vivienda, definido en el documento "Protocolo para dar cumplimiento en la CAV a lo previsto en el artículo 18 de la ley estatal de vivienda, que regula a la declaración de las zonas de mercado residencial tensionado"

En cuanto al marco competencial, el artículo 10.31 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de vivienda, ordenación del territorio y del litoral y urbanismo.

En relación con la competencia de los municipios en materia de vivienda, el artículo 25.2 a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local establece que los municipios ejercerán en todo caso como competencias propias, en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas, las siguientes:

- Planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística.
- Protección y gestión del Patrimonio histórico.
- Promoción y gestión de la vivienda de protección pública con criterios de sostenibilidad financiera.
- Conservación y rehabilitación de la edificación.

Igualmente, Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 17, establece como competencias propias de los municipios

- 7) Planificación, programación y gestión de viviendas
- 9) Ordenación, gestión, ejecución y disciplina en materia urbanística

1.- INTRODUCCIÓN

La presente memoria justificativa tiene como objeto exponer de manera ordenada el conjunto de elementos e indicadores analizados en el diagnóstico (Diagnóstico de Errenteria para la declaración de zona tensionada) y su conexión con una o varias de las circunstancias previstas en el artículo 18.2 de la ley 12/2023 que habilitan para solicitar la declaración de una zona como de mercado residencial tensionado.

La presencia de alguna de estas circunstancias ya ha sido acreditada previamente, en el propio informe del Observatorio Vasco de la Vivienda, dependiente del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, respecto al denominado como Criterio 2, que se corresponde con la siguiente circunstancia definida en el artículo 18.3 de la ley de vivienda

- a) Que la carga media del coste del alquiler en el presupuesto personal o de la unidad de convivencia, más los gastos y suministros básicos, supere el treinta por ciento de los ingresos medios o de la renta media de los hogares.

